

## **EGAN-en BERRAURKEZPENA**

**Donostian 1990eko Uztailaren 28an**

**Juan Inazio de Uria, aurkezlea**

Jaun-Andreok, Euskal Gobernuko Jaun Tixt Gorena eta Gipuzkoako Aldundiko Jaun Txit Nagusia.

Guretzat, urte sako igaro ta, Gipuzkoako Alduna dela eta ez dela, aurrera atera dugu, guztiok igaro ta, *EGAN* izeneko revista hau. Guretzat *EGAN* sortzen dan une hori izan zan benetan euskeraren pizkunde berri bat. Gerra itun bat igaro eta gero, euskera ez zan orri bat baka-rik lortzeko bide. XVIII.enean izan zan guretzat euskeraren pizkunde berri bat. Dakizuten bezala, gure aurrekoek izan ziren lehenengoz esan zutenak euskara zala hizkuntza nazionala euskaldunontzat. Eta XVIII.enean gure mobimendu hau zela eta ez zela, aurrera irten zuen euskara kulturaren plazara, sakristi eta elizak laga eta kultura sakon eta berri baten, oso baten, gidari bezala. Orduan gerta zan gai hori bigarre-nez gerta zan esan dudan bezala gerra itun horren ondoren Euskal Herri lagunen Elkarte hau sortu ta lehenengo ekintza bat izan zan Boletinarekin bat.

Boletin honek jarraitzen zuen lehengo *Revista Internacional de Estudios Vascos* horren bidean, Boletin horrekin bat dena euskeraz egindako sail bat *EGAN* izenakin, olerkari berri, antzertilari berrientzat euskeraz mintzatzeko bide bat eta honekin ireki. Hori zela eta ez zela, Etxaide, Jon Mirande, Gabriel Aresti, Txillardegi, Krutwig, hainbat eta hainbat gaurko euskeraren berpizte honetan lan asko egin dutenak *EGAN* zela ez zela izan zuten bide bat euskeraz idazteko. Hori izan zen *EGAN*ek une baten izan zuen garrantzirik haundiena. Eta esan nahi det gaur hainbat esker eman behar degula Gipuzkoako Aldun Nagusia-ri hainbat eta hainbat laguntasun eman digulako hau aurrera ateratze-

ko. Zergatik Boletin hau Juan San Martin, Mitxelena, Irigary, eta hainbat eta hainbat gizon zirela eta ez zirela, aurrera irten zan Boletin hau, ez zan aurrera irtengo Instituto de Filologia Julio de Urkijokin bat Aldun Nagusitik izan ez bagenu laguntza hau. Horrekin bat Euskal Gobernuen laguntza berezi bat gure alboan dela, egiten du posible gaur egun beste denbora berri baterako beste giro berri baten betiko asmoz eta jakitez. Besterik ez, eta eskerrik asko hemen zeatenoi.

J.I.U.

### **Iñaki Zumalde, zuzendaria**

*EGAN*-eko zuzendariak aurkeztutako alean bertan izenpetzen duen aurkezpena irakurri zuen, derrigorrezko agurren ondoren.

### **Juan San Martin-en hitzak**

*EGAN*-en hirugarren aldia aurkeztean, maiz errepikatu duguna berretsiko dugu, edonongo hizkuntza soil gelditzen da bere edukina hornitu ezik. XX. mende hau bukatzera dijoalarik, oraindik sakontasuna eta indarra ezezik, hedapenezko dentsitatearen trinkotasuna ere falta zaio euskal literaturari. Herri literaturaz ez gabiltza hain makal, baina belaunaldi bakoitzean gure kulturaren edo mundu zabaleko kulturaren zantzua txertatu beharrean gaude.

Alorrik alor, gairik gai hedatu beharra. Agian, hortarako, idazle adina eragile behar dugu, filosofia eremutik hurbil, ideia berriak erarik egokienean gureganatuz. Nekez ezagutu genezazke besteak, gu geu ezagutu ezik.

1948. urtean sortu zen *EGAN*, literatura aldizkaritzat, elebidun, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak bere Boletinarenean eranskin gisa. Euskal idazlerik urri zen garai hartan, baina luma hartu nahi zuten guzietan tokia eskaini zitzaizenez, historian lehen aldiz euskarak gaztelera bazterrerara bultzarazi zuen, zeren 1953. urtean, euskaraz soilik atera beharra izan bait zuten. Egia esan, ez inor uxatu zutelako, besteei non argitaratu falta ez zitzaielako baizik, eta hauek beste inon argitara ezinagatik.

Baina une berean larrialdia agertu zitzaion, eta orduan sortu berri zen Julio Urkixo Mintegiak eman zion babes. Beraz, 1954. urtetik, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte eta Gipuzkoako Diputazioaren Julio Urkixo Mintegia izan ditu aitaponteko, eta orotariko euskal idazleak hornitzaile.

Hara nondik hain apal hasia Detxepareren oparizko bihurtu zen: *Debile principium melior fortuna secuatur*, hiru euskaltzainek, "Asmo berri" arautzat, zuzendaritza beren lepora hartu zutenean.

A. Arrue, A. Irigaray eta K. Mitxelena, egundoko ondoen zekiten euskara idatziaren beharrez, euskal literaturaren sendotasun beharrez. Berrogei urte datoz laster asmo txalogarriaren jarraipenez. Hogetamar betetzean adierazi nuen, *EGAN*-en atariko batean, bere ibili luze bezain neketsua (ikus *EGAN*, 1984. urteko 2-4 zenbakia). Era berean, aldizkariaren egoera larria salatu nuen. Berria eta berrikeria ondo bereizten genizkien, eta emaitza onaren jabe zen tradizioari eutsi nahi genion. Edonola ere, portu onera eramane nahi genuen ontzia iduritzen zitzaigun Mitxelena eta biori, eta zela-hala aurrera jokatuz jarraitu genuen.

Eutsiak ekarri gaitu hirugarren aldi honetara, azpiegitura ahulez, eta orain nere Arartekotza karguagatik ezinez, baina eraberean hain beharrezko zaion azpiegitura berri bat sortzen denaren pozez, alderdiok alderdi, euskaldunok euskaldungoan bat eginez. Hirugarren aldia has-tean, zenbakiaren Aurkezpenak dioen bezala: "laguntza eskaini zioten zenbait sinadurari esker, goraka, hazten zihoan, bai neurri aldetik, bai edukinaren aldetik ere". Hala espero dut jarraipenean ere, ohi bezala, egintzak lekuko direla.

*EGAN*-ek egitura izan du edukiaren eredu. Sarrerakoan, beti, orotariko saio, elkarrizketa, biografia, kritika eta abar, euskal literaturaren edo plastika estetikaren inguruan. *Olerkiak* sailean, gure belaunaldian eman diren poetarik ospetsuenen lanak agertu dira, ondotik beste hizkuntzetatik ere aunitz itzuliak gureak ezagutaraziz.

*Kontu kontari* sailean ordea, ipui eta orotariko kontaerak narratibaz askatasunari emanaz, aldi berean itzulpeni ere zuhur leku emanaz, inork esan ez dezan gure gurean hertsirik gaudela; ez, *EGAN*-ek bere orriak lau haizetara zabaldurik eduki ditu. Bestalde, hainbeste mokofin eta tripazai diren herrian gastronomia gaiak ere beren toki berezia merezi zutela uste zuen norbaitek, eta hortik sortu zen *Jan edan*ak deritzon saila. Gainera, edozein aldizkariri hain beharrezko zaion txokoa, ohar, zuzenketa, azalpen edo kritika laburrak egiteko ezarri zitzaion *Adabakiak* deituko zena, era berean aldizkariaren pizgarritzat, bere irakurketa laburrekin. Horien inguruan jarri

zen *zinema* gaiarena aspaldi ahitu zen, eta Nahas-mahas ordea, *Adabakiak* zeritzonak irentsi.

*Liburuak* saila ordea, argitara berri diren liburu nahiz liburuxken berri emate aipamenez, zein edukiaren adierazpen soilez hala kritikaren eremuak urratuz, literaturari buruzko edozein aldizkariri beharrezko zaion gisara beteaz etorri da *EGAN*. Gainera, sail honetan agurtu ditu, bere bizitzan zehar, agertu diren kidekoak, batzuk laster suntsituak eta beste batzuk zela-hala beren buruak irauneraziz jarraitzen dutenak.

Azkenik, *Antzerkia*, zenbaki guzietan obra oso bat eskainiz. Ahalegin hori, gutik ulertua; zeren zoritxarrez, teatroa egungo literaturan modan dagoen edo ez pentsatzen duenik ere badenez gure administratitzan kultur ekintzen gidari dabiltzan horien artean. Aldiz *EGAN*-ek, euskarara itzuli diren munduko dramaturgorik hobereenen lanak agertu ditu; hemen eman zituen G. Aresti zenak bere antzerki lan guziak, hemen aurkitu zuten tokia P. Larzabalen gehienak; baita ere, *EGAN* honetan gure garaikoek ezezik, han-hemenka galzorian genituen lanetarik ugari ere argitaratuz etorri da, joan zen mendekoak zein gure honen hastapenetakoak, hemen bertan Xabier Lizardik idatzi zuen antzerki lan bakar hura bezala.

Horrez gainera, apaletan edo baul zaharretan ahazturik zeuden eskuizkribuetarik zenbait antzerki eta pastoral. Pastoral hauetarik oraindik aunitz bait da lehengo mendeetatik argitaratu gabe, eta *EGAN*-en arduradunok maiz kezkatu gaitu; baina aldizkari honen arduradun izan garenok bakarrik dakigu zer nolako lana ematen duen horietariko bat eskuizkribuetarik transkribatu eta inprimategi frogak zuzentzera arte. Inoiz literaturaren eremuak barna ibili ez direnek ezingo dute ulertu lan horren nekea; hizkuntzaren beharrak eraginiko idealak bakarrik gainditzen duen lana.

Egitura egoki baten barnean jarraitu den langintza horri esker, gaur egun, *EGAN*-ek bere baitan gordetzen du euskal literaturaren altxorrik aberatsena. Eta, emankor jarraituko badu, erabaki jatorra deritzat Diputazioa eta Jaurlearitza elkaturiko laguntzari, hori litzake orain arteko ekintza saritzeko modurik onena, alderdiak alderdi, euskaldunak euskarana bat egin dezagun eta bere edukitzat literatura bizkortzen eta indartzen lagundu.

J.S.M.

## Imanol Murua-ren hitzak

1948. urtean sortu zenetik, *EGAN* aldizkariak oinarrizko funtzioa bete du euskal literatur obrak ezagutzera ematerakoan, gure herriarentzat hain gogorak ziren garai haietan, euskaraz idatziriko obrei argia ikusteko aukera ematen zitzaielarik.

Euskal Erriaren Adiskideen Elkarteari zor diogu aldizkari honen jaiotzea, bere Boletinaren gehigarriaren kerizpean, euskerazko lanak argitaratzea ia ezinezkoa zen momentu haietan, nahi ta nahiezkoa bait zen irakurleogarengana iristeko bide bat izatea.

*EGAN*-en helburua, kultur hedapena zuzenean eragiteaz gainera, euskaraz idatzitako literatura sustatzea eta duintzea izan da hasiera hasieratik. Bai ikerketa filologikoez eta bai literatur lanek adierazpide berezi eta egoki bat izanik.

Aldizkari honen bizitza aurrera zihoan ahala, gauza gehienek bezala zailtasunak aurkitu zituen bidean. Guztiok dakigu era honetako proiektu bat aurrera ateratzea oso zaila eta neketsua gertatzen dela nahiz eta bertan lanean ari diren jendeen borondatea ezin hobea izan. Honela, Euskal Erriaren Adiskideen Elkartearen aurrekontu zailtasunen ondorioz Gipuzkoako Foru Aldundiak bere babespean hartu zuen aldizkaria.

Foru Aldundia beti azaldu da prest kultura bultzatzeko eta aurrera ateratzeko, zentzu honetan, guztiz garrantzizkoa ikusten du *EGAN* bezalako argitaralpenek euskal jendearengan, eta gazteriarengan bereziki, literatur zaletasuna handitzeko jokatzan duten papera. Era berean, Julio Urkijo Mintegiaren literatur ikerketak publiko zabalari hedatzeko urrats egokia izan zen aldizkari hau babestea eta euskara hobeto menderatu nahi zutenentzako laguntza zuzena.

Julio Urkijo Euskal Filologia Seminarioaren bitartez, Diputazioak beti *EGAN* aldizkaria euskal literaturgileentzat eskaparate bat eta zabalatzeko medio bat izateko ahaleginak egin ditu, lurralde eta idazleen arteko muga guztiak baztertuaz.

Ez ditut inola ere ahaztu nahi Antonio Arrue, Aingeru Irigarai eta Koldo Mitxelena, Julio Urkijo mintegiaren zuzendaritzan goraiatzeko lana egin bait dute, gure hizkuntza aurrera ateratzeko beti lanean aritu ziren, aldizkari honi bultzada handi bat eman ziotelarik.

Gaur hemen *EGAN* aldizkari honen 16. alea aurkeztera etorri gara eta baita bizitza eman zion Elkartearen babespera bihurtzen dela esatera ere. Euskal Erriko Adiskideen Elkarteak gogo handiz hartu du berri-

ro ere aldizkari honen gidapena eta bere berrikuntza eta lan gogoak laister bere fruituak ematen hasiko dela zihur nago, orain arte bete duen funtzioa zuzenki beteaz.

*EGAN* aldizkariaren aleek, bere berrogei urtetako historian zehar ezaugarri guztiz txalogarriak izan dituzte, hala ere aipagarrienak Euskal Herri osoko idazleen lanak argitaratzea eta idazleen arteko etnografi mailako mugarik ez ezartzea izango litzateke beste, Bizkaitik Zuberoa arte alde guztietako idazleen obrak argitaratu bait ditu, egiazko Euskal Herri bateratuaren anaitasunerako. Orain hastera doan denboraldi berri honetan filosofia berberarekin jarraituko duela zihur nago.

Gipuzkoako Foru Aldundiak beti izango ditu ateak irekita bere eskutan dagoen laguntza guztia eskaintzeko, *EGAN* bezalako argitaralpenak bultzatzeko eta zabaltzeko gure hizkuntzaren defentsaren alde.

## Joseba Arregi-ren hitzak

Bi hitz bakarrik, Juan Ignacio Uria jaunak eskatu duen bazalaxe.

*EGAN* neretzako lehendabizi da oroitzapen bat eta oroitzapena, hain zuzen, gure belaunaldiak euskerarako biderik aurkituko ez zukeelako eta euskal literatura zer den jakin ahal izango ez zukeelako, bere garaian *EGAN* izan ez balitz. Hori neretzako testigutza pertsonal bat da eta guk, nik eta nere belaunaldikoek jakin ahal izan dugu euskal literaturarik bazegoela, hain zuzen, *EGAN* aldizkariari esker eta *EGAN*en aurkitu genituelako hemen aipatu diran hainbat eta hainbat autore. Eta agian, Juanito San Martinek berak gogoratu duen bezala, atzerriko hainbat antzerkigile ere askotan erdaraz baino lehenago eta errezago aurkitu ahal izan ditugula euskeraz. Gogorotzen naiz Antonio Maria Labayenek itzultitako Iurremanen lanak eta abar erdaraz baino lehenago euskaraz bertan irakurri ahal izan ditugula. Besterik ez zegoenean beraz *EGAN* guretzako izandu zan euskerara eta euskal literaturara hurbiltzeko bide bakarra edo ia-ia bakarrenetakoa.

*EGAN* beraz alderdi horretatikan da euskararen historiaren lekuko. *EGAN*ek izan duen historia da azken batean euskerak berak mende honetan eta batez ere gerrate zibilaren ondorenean izan duen historiaren lekuko, ezinean eta bizi nahian, ixilpean eta garai zailetan eta hala eta

guztiz ere beti burua tente edukitzeko gogoarekin eta asmoarekin. Eta guzti hori sor zaio belaunaldi oso bati. Ez dut izen berezirik aipatuko, baina behin baino gehiagotan tokatzen ari zait azken bolaran hori esatea eta ez da historiaren aurrean burua makurtu behar huts bat, baizik eta benetan zor den zerbait esatea, hau da, belaunaldi haundi bat egon da, zeni esker euskerak iraun duen eta gaur egun euskerarik badago... zailtasunean eta galerazirik zegoenean gizon eta emakume hoiek, Euskal Herriak emandako gizon eta emakume hoiek, egiten jakin zutena izango ahal gara gu ere askatasunean egiten jarraitzeko gai, nahiz eta batzutan dudak sortu ez ote balore eta ausardia gehiago egoten garaia zailak eta euskera eta euskal literaturgintza galerazirik daudenean askatasunean baino. Hala eta guztiz ere, belaunaldi horretaz gogoratzeak emango ahal digu guziori behar den adorea askatasunean ere beraiek zailtasunean egiteko izan zirena jarraitzeko gaitasuna.

Eskerrik asko denoi.

J.A.